

Is Full kantuan, Pinkie karisma-dun antiheroiarekin batera.

### Hondartzako 'noir'

*Jurassic Park* film ezagunean parte hartu zuen Richard Attenborough aktoreak, hain justu, lan bikaina egin zuen Pinkie antzeztekoan, John Boulting zinemagilearen zuzendaritzapean. Filmean, gaizkileen buruzagiaren lehenbiziko agerraldia pantailatik kanpo ikusten da: pertsonaiaren ahotsa entzuten da, baina haren bi eskuak baino ez dira ikusten soka batekin jolasean, bere gaztetasunaren eta nortasunaren konplexutasuna erakusteko. *Noir* generoko antzezpen handien artean dago Attenboroughena, Richard Widmarkek *The Street with No Name* pelikulan egin zuenaren parekoa.

Estilo beltzeko film onenen artean koka daiteke *Brighton Rock*, hiriko etorbideak, kalezuloak edo hondartzak filmatzekoan Boultingnek ezartzen duen erritmoari erreparatzea baino ez dago, tarteka estilo dokumentalera hurbilduz, baina, betiere, generoaren ezaugarri nagusi den gau giro ilunetatik urrunduta, eguzkipean filmatutako lana baita. Argitasun horrek eransten dio filmari, hain justu, bere ezaugarri propioetako bat, istorioa ez baita hiri ilun industrializatu eta herdoildu batean garatzen, udatiarak hartzen dituen hiri ezti batean baizik. Antzeko hautua egin zuen Raul Walshek *High Sierra* ziutateatik atera eta mendateetara eramanean.

Filmaren momenturik gogoangarriena, eta, halaber, bikainea, Haleren erailketarena da, zena barraketan kokatutako beldurrezko tren batean gertatzen den: Haleren eta Pinkieren arteko borroka atrakzioa apaintzen duten irudi beldurgarriekin tartekatzen du Boultingek, maisuki, Hitchcock gogoraziz.

Beste momentu azpimarragarri bat ere feria horretan gertatzen da, Rosek (Carol Marsh) Pinkieri eskatzen dihonean bere ahotsa grabatzeko horretarako egokitutako kabina batean. Rosek lilurata begiratzen dio bere maitale kriminalari kristalaz beste aldetik bere hitzak grabatzen dituen birtartean. Kabinatik grabazioa biltzen duen diskoa aterako da, eta euskarria funtsezkoa izango da filmaren amaieran, baita nobelaren itxieran ere. Akaso lehenengoak bigarrena gainditzen du soinuari esker, baina bata zein beste literaturaren eta zinemagintzaren amaierarik gorenetarikoak dira.


## Urari so

Irati Majuelo

**H**iri bat, hiri bat ur gainean. Hiri akuatikoa, urak hartutako hiria, hondoratutakoa, turristaz gainezkatutako hiria, hori omen da Venezia. Diotenez, erakarpin magnetikoa, ia mistikoa, sortzen du kanpotik joandakoengan, denbora kondentsatzen duten eraikin eta ubide aldakorrek eraginda. Indar ikusezin horrek gidatuta bidaia zuen Joseph Brodsky idazleak Venetoko hiri-burura hamazazpi urtez jarraian, neguan beti, turistak desagertu eta lanbroaren fantasmagoriak azaleratzen diren garaian. Bisitaldi horietan erasan zuten zirrarra eta garatzen joan zen gogoetekin osatu zuen *Ur-marka* liburua, duela zenbait hilabete Katakarak argitaletxean euskarara ekarria.

Gizakiak egindako maisulanik handientzat jotzen zuen idazleak Venezia, 32 urte zituenean lehen

aldiz zapaldu zuenetik liluratu baitzuen hiriak. Alabaina, postaletik gutxi du ondu zuen saiakera honek, ez baita iluntze gogoangarririk, nahi eta nahi ez argazkiratu beharreko lekurik, ez eta datu historiko esanguratsurik ere. Hirian zehar egindako ibilbideetan, bidaia-irien bizipenetan edota gizarate industrialaren ondorioz jasaten dituen eraldaketetan baino, beste zerbaitetan jartzen du arreta Nobel saridunak. Hots, hiriaren



### 'Ur-marka'

**Idazlea:** Joseph Brodsky. **Itzultzailea:** Rikardo Arregi Diaz de Heredia. **Argitaletxea:** Katakarak.

## Asaba zaharren baratzea

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**T**radiziorik zaharrenean artean dugu euskal ahozko testuak biltzea eta zabaltea. Cerquand, Barbier, Ariztia, Azkue edota Barandiaran aritu ziren etxez etxe, ezin konta ahala elkarriketarik egiten, euskararen geografian barrena, usadioak, kantak eta kontuak biltzen. Garai haiek pasatu dira. Duela ia berrehun urte jaiotakoek esan zizkietenak, ordea, gordeak dira.

XX. mende osoa altxor etnografiko hura miresten pasatu dugu, antigoaleko argazkiak balira bezala begiratzen. Akordatu gabe haiek liburutatik atera eta bizi berria eman behar geniola.

Zorionez, azken hamarraldi hauetan irakasleen artean lan handiak egin dira, altxor haiek gozatzeko gehiago (Anje Duhalde gogoa) hainbeste maitatzen aritu gabe.

Fruituak nonahi, idazleek ere ekarpen handiak egin dituzte, hala Lertxundi eta Zubizarretak euren 80 hamarraldiko testuliburuetan nola ondorengo Igerabidez Etxaniz eta Olasoren ekarpen berriagoetan.

Testuinguru honetan kokatzen da *Hanka, moko eta buztan*. Ahotik belarrira gozatzeko piezatz beteriko liburua, asmakizun, aho-korapilo eta *ipuiniekin*. Asko-askotan asaba zaharren mintzo eta gogoia islatzen duten perlatxo hauekin.



### 'Hanka, moko eta buztan. Animaliekin dantzan'

**Idazlea:** Xabier Olaso. **Ilustratzailea:** Sandra Garayoa. **Argitaletxea:** Ikaslekar.

alderdi fisikoa bazter utzi, eta haren atmosferan biltzen dira idazlearen gogoetak, kasik aipua, lipar batez sentitutako inspirazio kolpeak balira bezala. Horrek egiten du berezi liburu hau, finean ez baita Venezia buruzko saiakera bat, baizik eta Venezia posible egiten duen lan bat. Hala, atal batetik besterako jauzi ia hautemanezinetan agertzen dira hiriaren giroak biltzen dituen hainbat gai: denboraren iragatea eta haren materializazioa, desioa eta edertasuna, turismoa eta aristokrazia zaharra, bizitza eta heriotza.

Baina badira ororen gainetik gailentzen diren bi gogoetarik, elementu, metafora errepikarior. Lehena begiradarena da, Angel Errok hitzaztean esaten duenez, «begiaren poetika» baitarabil Brodskyk. Idazlearen aburuz, Italiako hiriak badu zerbeit bidaia-irien begia lehenestera bultzatzen duena gorputzeko beste ezin organoren aurretik. Edertasuna nagusitzen den hirian, begiak hura bilatzen du, segurtasuna eta kontsolamendua bilatzeko, eta, hala, autonomo bilakatzen da, bidaia-irien gorputz osoa ekintza ho-

rretara bideratuz. Hala idazten du Brodskyk ere, begia lumaren aurretik jarriz, konbentzio literarioei baino senari jarraikiz, hizkera poetiko sendo baina ez estetizistaz. Eta hala sortzen ditu irudi eder eta bakanak, irakurleari kutsatzen diotenak idazleak Venezia dion miresmena.

Bigarrena ura eta denbora lotzen dituen hausnarketa haria da. Brodskyren aburuz, ura denboraren irudia da, eta, honenbestez, Venezia da harreman horren hezur-mamitzea gauzatzen den leku berezi bat. Gogoeta sakon horiek, ordea, kontaera argigarri eta freskoaren bidez azaltzen ditu idazleak, sarri pasarte samur bezain ederrak utzia. Esaterako, aipatzen duenean Gabon zahar gaueko hamabietan uraren ondoan egoten saiatzen dela beti, «ahal dela itsaso edo ozearo baten ondoan, bertatik denbora zati berri bat, denboraz beteriko katilu berri bat nola sortzen den ikusteko». Euskaraz gozatzeko lan interesgarri bat, dudarik gabe, oharkabean pasatutako itzulpen eta gramatika nahaste gutxi batzuk gorabehera, Rikardo Arregik lan txukuna eginez itzuli duena.

## Historianautak

### HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**J**akintza liburuen artean desoreka handi xamarra egon izan da gurean. Haur txikiak hiztegi irudidunak nahiko erraz eskuratzen ahal izan ditugu, bai eta animalia (kumeak) irudiak dituztenak ere, zaharxeagoentzat ere azken hauek. Adinean gora egitean edota gaiak aldatzean, beste kontu bat izan da; hutsuneak ziren nagusi.

Zorionez, garai berrietan edizio ausartagoak eskaintzen dira, askotariko gaiak proposatzen dituztenak, adin tarte zabalagoarentzat.

Pena da, ordea, eskaintza gero eta interesgarriago honetan euskal ekoizpenen urritasuna, urtearen bueltan, maizegi, hutsaren pareko izaten dena.

Itzulpenak batik bat ingeles eta frantses egileen lanetatik egiten dira, hain gertukoak izanik, gaitz erdi esatera eramane gaitzakeen datua, batik bat naturari dagoz-

kion lanetan. Kulturaliki ere ez daude erabat aparte, eta horregatik Grezia klasikoa edota bikingoak gaitzat dituzten liburua aski interesgarriak zaizkigu, *Historianautak* bilduma honen kasuan bezalaxe.

Hiru haur eta katu bat bitartekari lanak egiten ditugularik, herriar xeheak garai haietan bizi zirenean moduak ezagutzeko aukera dugu, eguneroko ohiturak, kultur ezaugarri nagusiak eta ezinbesteko topikoak ezagutzeko. Kontakizuna komiki estilokoa da gehienetan, azalpen koadro eta jolas *arigarriekin* tartekatuta.



### 'Abentura bat bikingoen herrialdean'

**Idazlea:** Frances Durkin. **Ilustratzailea:** Grace Cooke. **Itzultzailea:** Amets Santxez Munain. **Argitaletxea:** Ttartalo.